

Gure proiektua aurrera ateratzeko hainbat baliabide beharko ditugu:

- **Baliabide fisikoak:** produktu hau fabrikatuko dugun lokala, ordenagailua nahiz mugikorra eta diseinuak garatu ahal izateko materiala. Ordenagailua eta mugikorra Internetera konektatzeko erabiliko ditugu, hau da, bezeroekin harremana mantentzeko. Gainera, mugikorra deiak egiteko ere oso baliagarria izango zaigu, hainbat bezeroek (adinekoek gehienbat) nahiago izaten baitute komunikatzeko modo hau.
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Landerrek duen gaitasuna diru kontuak zuzentasunez kudeatzeko, Martak duen saltzeko ahalmena, Noek bezeroarekiko harremanetarako duen erraztasuna, Nereak produktu pertsonalizatuak diseinatzeko duen gaitasuna eta Eneidak duen gaitasuna web orriak diseinatzeari dagokionean.
- **Finantza-baliabideak:** taldekideen aurrezkiak. Diru gehiago behar izanez gero hainbat salmenten edo proiektuen bidez lortzen saiatuko gara.

